



Arartekoaren ebazpena, 2011ko irailaren 27koa. Horren bidez, Getariako Udalari gomendatzen zaio kontratazio prozedura batean gertatutako akats baten ondorioz izandako kalteengatik enpresa batek premiatutako ondare erantzukizuneko espedientea bideratu dezan.

Aurrekariak

1. (...) Sozietate Kooperatiboak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, Getariako Udalaren jarduerarekin ados ez zegoelako kontratu bat esleitzean izandako akatsarekin eta sortutako kalteengatik aurkeztutako erreklamazioa artxibatu izanarekin.

Enpresak bere eskaintza aurkeztu zuen beste bi enpresa gonbidaturekin batera Iturzaeta ikastetxeko leihoak aldatzeko negoziatutako prozeduran. Eskaintzak baloratu ondoren, 2010eko ekainaren 16an, udal arkitektoak erreklamatzailen lantegian agertu zen udalaren "batzordeak" obra esleitu ziela adierazte aldera eta, egunek aurrera zihoazela ikusita, materialaren eskaera azkartu behar zutela esan zien, kontratazio erakundeak esleipena burutzeko kaltetan izan gabe. 2010eko ekainaren 21ean, arkitektoaren xehetasunak zehaztu ondoren, burutu beharreko leiho kopuruan ezberdintasunak egon zirelako, enpresak eskaria bideratu zuen.

Hala eta guztiz ere, 2010eko ekainaren 25eko ebazpen bidez, kontratua beste enpresa bati esleitu zioten zenbateko partzialen baturan akats bat egon zelako eta, beraz, eskaintzarik merkeena beste enpresa eskaintzaile bati zegokiona zelako.

Horren guztiaren ondorioz, 2010eko abuztuaren 19an kalte-ordainengatik erreklamazioa eskatu zuten, 2010eko abuztuaren 30eko idazki bidez zuzenduta, udalak hala eskatuta. Zuzenketa moduko azken idazki horrek azaltzen zuenez, lehenengo erabakiaren eta bigarrenaren artean igarotako denbora zela-eta, enpresa fabrikatze lanetan hasia zen, eta erabaki aldaketak kalte-ordainak eragin zituen, erantsitako balorazioaren arabera.

Udalak, 2010eko irailaren 21eko alkatetza ebazpen bidez, ez zuen ondare erreklamazioa onartu, hura hasteko aginduzko agiririk eskaini ez zelako eta praktikan jartzeko froga edo bitartekorik proposatu ez zelako. Enpresa kooperatiboaren ustez ondare erantzukizunaren eskaerak erreklamazioa bideratzeko oinarrizko elementuak ditu, beraz, erakunde honen esku-hartzea eskatzen du.

Kexa izapidera onartuta, arartekoak gaiaren inguruko informazioa eskatu zion Getariako Udalari eta, aztertutako agiriak ikusita, kalteengatik erreklamazio bat izapidetzeko legezko baldintzei buruzko lehen balorazio bat helarazi zion.





2. Getariako Udalak gure informazio eskaerari erantzun zion akats bat egon zela adieraziz, izan ere, eskaintzan agertzen zen amaierako batura ez zen zuzena zenbateko partzialak gehitzen baziren eta, ondorioz, eskaintzarik merkeena beste enpresa eskaintzaile bati zegokion, 114.14,34 eurekin. Bestalde, adierazi digutenaren arabera, lehen hitzaldiaren ondorengo bigarren egunean, akatsa adierazita, udal arkitektoak pertsonalki adierazi zion enpresa erreklamatzailerari egoera berria. Udalak gertatutakoaren xehetasun guztiak eskaini zizkien, justiziari jarraiki jarduteko beharrea zegoela argitu zien eta erreklamazio bat aurkeztera bultzatu zituen euren ondarean kalte ordainak eragin izan balitzaie.

Azken kontu horri dagokionez, udalak azpimarratu du erreklamazio espedienteak ez dituela betetzen izapidetzeko bete beharreko gutxienekoak, ez baititu aurkezten araudiak eskatzen dituen agiriak. Erreklamatzailerari zehaztasun horren berri eman ondoren, konpondu ez zenez, udalak aurkeztutako erreklamazioa artxibatu zuen.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzat jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:

Oharbideak

- 1.- Kexaren helburua aurkeztutako ondare erantzukizunagatiko erreklamazioa artxibatzeke udalak bideratutako ebazpenarekiko desadostasunean oinarritzen da. Hala erabaki baitzuen udalak eskaintzarik ekonomikoena azkenik esleipendun izan zen enpresari zegokiola zalantzan jartzeko argudiorik agertu ez zenean.

423/1993 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, Herri Administrazioen Prozeduren Erregelamendua ondare erantzukizunaren alorrean onartzen duena (aurrerantzean Erregelamendua) halako erreklamazioak izapidetzeko jarraitu beharreko prozedura arautzen du. Erregelamenduaren 6 artikulua azaltzen duenez,

“...En la reclamación se deberán especificar las lesiones producidas, la presunta relación de causalidad entre éstas y el funcionamiento del servicio público, la evaluación económica de la responsabilidad patrimonial, si fuera posible, y el momento en que la lesión efectivamente se produjo, e irá acompañada de cuantas alegaciones, documentos e informaciones se estimen oportunos y de la proposición de prueba, concretando los medios de que pretenda valerse el reclamante.”

Enpresa interesdunak kalte ordainengatiko erreklamazioa aurkeztu zuen bi ataletan banatuta:

- a) Lortu gabeko irabazia (materiala eta muntaia): 41.058,65 euro.





- b) Sortutako kaltea: benetan egindako lanengatiko gastuak, 3.500,51 euro (2614,49 euro materialagatik, leihoak ekoizten dituen enpresaren ordain-agiriaren arabera¹ eta bi langile autonomoen 48 orduko eskulana); eta beste 9.268,36 euro 2 langileen bi hilabeteko eskulanagatik.

Udalak enpresa erreklamatzailari aginduzko agirien falta konpon dezan eskatu dio eta, hala egingo ez balu, bere eskaerari uko egingo litzaiokeela adierazi dio, bestelako izapiderik gabe artxibatuz, 30/1992 Legearen (AJAPEL) 42.1. artikuluan ezarritako ondorioekin².

Enpresak errekerimenduari erantzutean adierazi zuenaren arabera, pairatutako kalteak lanaren esleipenduna izan zela adierazte aldera emandako ahozko lehen jakinarazpenetik akats bat egon zela helarazte aldera emandako bigarren jakinarazpenera arte bideratutako fabrikazio lanei zegozkien. Azpimarratu duenez, sortutako kalteak aurreko jakinarazpenean helarazitakoak dira, adierazitako balorazio ekonomikoaren arabera.

Azkenik, udalak, 2010eko irailaren 21eko alkatetza ebazpen bidez, premiatutako ondare erreklamazioa ezestea erabaki zuen, erreklamazioak aurkeztutako eskaera ukatu zuela aitortuz, hura hasteko aginduzko agiririk aurkeztu ez zuelako eta praktikan jartzeko inolako frogara ezta bitartekorik proposatu ez zuelako. Ebazpen horrek ezta aurrekoak ere ez dute zehazten zein aginduzko agiri diren udalak aipatzen dituen eragindako enpresaren erreklamazioan forman izapidetu ahal izateko.

- 2.- Enpresa interesdunak Getariako Udalaren aurrean erreklamazioarekin batera eskainitako agiriak aztertuta, gure ustez, aurretik aipatu dugun Erregelamenduen 6. artikulua eskatzen dituen oinarritzko baldintzak beteko lirateke. Hain zuzen ere, honakoak:

- Enpresaren ustez sortutako kalteak zehazten dira.
- Sortutako kalteen eta zerbitzu publikoaren arteko kausalitatearen harremana adierazten da (udalaren erabaki aldaketaren ondorioz sortutako kalteak).
- Sortutako kaltea ekonomikoki ebaluatu da (erantsitako dokumentuaren arabera).

Beste kontu bat da interesdunak alegatutako kaltea eta haren kuantifikazio ekonomikoa, eskatzen dituen kontzeptuengatik (lortu gabeko irabazia eta sortutako kaltea), bidezkoak ote diren, ahozko lehen jakinarazpenaren eta bigarrenaren artean bideratutako fabrikazio lanengatik pairatutako kalteak ebaluatu nahi badira, kontu hori dagokion ondare erantzukizuneko espedientea bideratzean argitu beharko baitzen. Instrukzio ekintzek agiriak zehaztea,

¹ Udalak halako ordain-agiririk eskaini ez zuela adierazi du.

² Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común:



ezagutzea eta egiaztatzea dute helburutzat. Horien arabera ebazpena emango da (AJAPELaren 78.1. artikulua).

Bestalde, interesdunak prozedura batean haren argudioak defendatzeko egokitzen jotzen dituen frogak bitartekoak aurkez ditzakeen arren, administrazioak egiaztat jotzen ez baditu interesdunek alegatutako ekintzak edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, instruktoreak hamar eta hogeita hamar egun bitarteko frogarako epe bat irekiko du egokitzen jotzen dituen bezain beste burutu daitezkeen (AJAPELaren 80.2. artikulua - materiala eskaintzen zuen enpresaren hitzaldia fakturatutako kontzeptuak argitzeko, arkitektoaren adierazpena egoerei eta kaltetutako enpresarekin izandako harremanei buruzkoa, etab.). Instrukzio epe horretan legezko xedapenen bidez aginduzkoak diren udal zerbitzu teknikoen txostenak ere ebaluatuko dira, eta erreklamazioa ebazteko beharrezkotzat jotzen direnak (besteak beste, erreklamazioaren egokitasunari buruzko txosten juridikoa, erreklamazioaren kontzeptuaren azterketa lortu gabeko irabaziaren kontzeptuari erreferentzia berezia eginez, etab.).

Zentzu berean, Erregelamenduak arautzen du, 7. artikuluan eta hurrengoetan, instrukzio ekintzak, frogen praktika, txostenak, audientzia eta ondare erantzukizuneko prozeduraren amaiera.

Azken finean, dagokion espedientearen instrukzioak zehaztu, ezagutu eta egiaztatu ahalko ditu eskainitako datuak eta erreferentziako erreklamazioari buruzko ebazpen arrazoitua eskainiko duen oinarritutako balorazioa egin ahalko du.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

42/2011 GOMENDIOA, irailaren 27koa, Getariako Udaleriaren egina

Adierazitako gogoeten babesean, administrazio espedientearen behar bezala bidera dezan enpresa erreklamazioak, bere ustez udal jarduerak eragin dizkion kalteengatik premiatutako ondare erantzukizuneko eskaera ebazte aldera.

